

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **Arabako Batzar Nagusietako enplegu publikoaren eskaintzan egindako aldaketak, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak ezartzearen ondoriozkoak**

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, maiatzaren 17an egindako batzarrean, erabaki hau hartu zuen:

Lehena: Indarrik gabe uztea 2017. urterako enplegu publikoaren eskaintzak (oraindik ere indarrean egon daitezkeenak). Mahaiaren akordioa, 2017ko abenduaren 19koa, ALHAO 147. zenbakiduna; eta 2019. urtean Mahaiak hartutako akordioa, 2019ko maiatzaren 14koa, ALHAO 59. zenbakiduna.

Bigarrena: Onestea 2022. urterako Arabako Batzar Nagusietako enplegu publikoaren eskaintza, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen aldi baterako enpleguaren egonkortasun-prozesuak eratuko dituen, lege hori bete dadin; eskaintzaren lanpostuak erabaki honetako eranskinean zerrendatzen dira.

Hirugarrena: Enplegua egonkortzeko prozesuetan sartzen ez diren lanpostuak eskuratzeko sistema orokorra oposizio-lehiaketa askea izango da, eta lanpostu horiek eskuratzeko prozedura eta baldintzak dagozkion deialdietan zehaztuko dira, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren erabakien bidez onartzen diren oinarrien arabera; bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesuen deialdiak gehienez ere hiru urteko epean burutu beharko dira, akordio hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena: Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu lege hori ezartzen zaion enplegu publikoaren eskaintzan jasotzen diren lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratuko da.

Bosgarrena: Erabaki hau eta dagokion eranskina Arabako Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn argitaratuko da, eta enplegu-eskaintza publikoaren laburpena EHAAan argitaratuko da.

Erabaki honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera; edo, aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 9/1998 Legearen arabera.

#### **ERANSKINA**

##### **Arabako Batzar Nagusietako enplegu publikoaren eskaintza 2022rako**

Lanpostu hauek hautatzeko sistema oposizio-lehiaketa askea da.

ADMINISTRARI-LANPOSTU BAT

Taldea: C1.

Kidego Tekniko Administratiboa.

Behar den titulazioa: Batxilerra, Teknikoa edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2, nahitaezkoa.

**ATEZAIN-GIDARI LANPOSTU BAT**

Taldea: C2.

Laguntzaileen Kidego Teknikoa.

Behar den titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatua, Batxilerra, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2, ez nahitaezkoa.

Lehiaketa bidezko sarbide askeko hautaketa-sistemarekin beteko diren lanpostuak (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak).

**LEGELARI LANPOSTU BAT**

Taldea: A1.

Goi Mailako Kidego Teknikoa.

Behar den titulazioa: Unibertsitateko goi mailako titulazioa Zuzenbidean.

Hizkuntza eskakizuna: 3, nahitaezkoa.

**ATEZAIN-GIDARI LANPOSTU BAT**

Taldea: C2.

Laguntzaileen Kidego Teknikoa.

Behar den titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatua, Batxilerra, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2, nahitaezkoa.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 17a

*Lehendakaria*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**